

KALETIK NATOR, KALERA NOA. BERTAN DA NIRE GOGOIA.

Arabako jendarteari gutun irekia

Mari Cruz Polaina naiz, eta mezu hau iritzi publikoarentzat da; baina, batez ere, arabako jendartearentzat, zeinak, Podemos-Ahal Duguren proiektuan sinetsita eta aldaketaren aldeko apustu argia eginez, bere botoak eman zizkigun 8 Prokuradoreri, euren ahotsa izan gintezen. Hauteskunde garaian honako hauen alde lan egiteko konpromisoa hartu genuen: hiritarren erreskatea, ustelkeriaren kontrako borroka, ahalduntzea, parte-hartzea, giza eskubideak eta sozialak defendatzea ... Hau da, guztiontzako Araba baten alde lan egiteko ardura hartu genuen, oinak eta belarriak kalean jarrita, jendearekin batera, eta politika feminizatzearen aldeko apustu argia eginez. Eta, batik bat, ez genuen nahi aurretiko akats berberak errepikatzerik. Gerora Batzarkide-taldearen gatazka izendatu zutena lehen minututik zegoen presente. Izan ere, elkarren arteko borroka biziari ekin genion, eta komunikabideei aldian-aldian haren berri eman. Gaur egun bizirik dirau gatazka horrek, eta irtenbiderik eman gabe, inork ez baitio oraindik heldu. 2016 otsailean, Estatuko Akzio Instituzionalerako Idazkaritzaren aholkuari jarraiki, arazoa konpontzeko kanpo-zerbitzu bat kontratatzea erabaki zuten batzarkide-taldea berak. Baina barneko boikota dela medio, erabaki hori gauzatu gabe dago oraindik.

2016ko maiatzeko bozeramale-aldaketa, zeinetan ez nuen parte hartu, behin-behineko adabakia izan zen. Horrek, bertikaltasuna ekartzeaz gain, taldearen kohesioa hautsi zuen, eta lidergo heteropatriarkal despota ezarri. Barne indarkeria horrek porrota ekarri zion gure konpromisoari, jendarte eredu alternatibo bat eraikitzeari, alegia. Hiritarrekioa soilik zen gure kontratua. Batzar Nagusien atzean gotortzea, bere arau zaharkituetan babestea edo epe-espeditenteak bideratu eta haren dinamika moteletara makurtzea, hiritarrei hesiak jartzen laguntzea da. Prokuradore ona izatea, besteak bezalako, politika egitera etorri den kaleko jende normala izatearekin bateraezina da. Behetik gora eraikiko genuela hitz eman genuen. Bizitzaren merkantilizazioari bide ematen dion alderdi bateko kide izatea zalantzan jartzen dut hainbatetan: Arabako Errioxan mamografiak egiteko unitate bat jartzeari uko egiten zaionean, adibidez, eta arabarrak lehen eta bigarren mailako herritar bihurtu. Bertakoak, hurbiltasun-printzipioa edo parte-hartze zuzena ahazten ditugu, euskaldun guztion eskubideak homogeneizatu behar direla esanez, eta hori Arabaren lurraldetasuna eta bertako biztanleen identitatea ukatzea da. Hori guztia berdintasunarekin bateraezina da. Demokrazia zuzenari eta parte-hartzeari ezin zaio ezarri, ez mugarik, ez fiabardurarik, ezta kontrolik ere. Arabarron bizi-baldintzak eta bizikidetzak hobetzeko erabili beharko litzatekeen diru publikoarekin ordaindutako ekitaldi sozialetan Podemos-Ahal Dugu ordezkatzeko dugunean, iraganari begira eta aspaldian porrot egindako eredu sozio-ekonomikoa bultzatuz, edo ekitaldi politikokoetako elizkizunetara joatearen aldeko defentsa sutua egiten dugunean, hasierako proiektuan aldarrikatzen genuena urratzen dugu: pribilegiarik eza, jasangarritasuna eta laiktasuna. EAJ-PSOEri bere gobernu-egitasmoa gauzatzen laguntzen badiogu edo herritarren eskubideen kontrako aurrekontuak onartzerakoan menpeko jarrera hartzen badugu, ezinezko egiten dugu herritarrek agindutako proiektu politikoa betetzea. Gizarte-Ongizate Diputatuaren konparentziarako Kontrol-Batzarrean interpelazio bat musu-truk erretiratzea botereari men egitea da, eta guk fracking sozialaren aurka jardutea erabaki genuen.

Gu ez ginen besaulkietan geratzera etorri, baizik eta alfonbra-azpitan begiratu eta patrikak gardenak izan daitezela eskatzera. M15eko aldarrikapenean bat egiten ez duten hainbat kontu entzun dugu: "Ez gara oposizioa egitera etorri", "Trentsi ezazu, edo alde!"

Hasiera-hasieratik, egitasmo politikoa Araban huts egin zezala zen asmoa, eta EAJri zurikeriaz laguntzea. Ez dira herri-ordezkariei dagozkien jarrerak gatazka honen inguruan sortu eta ohiko bihurtutakoak: giro bortitza; izu psikologikoa; pertsonaren balio, familia edo bizimoduan oinarritutako eguneroko eraso eta mehatxuak edo oinarriak gabeko hitzeko delitu-akusazioak. Hori guztia zurrumuru eta esamesen bidez egin zen, eta pertsonaren duintasunaren kontra jarduteko asmoz. Desadostasun sasi-politikoei aurre egiteko pertsonari egin zitzaion eraso, eta, diskordia antzuen bidez, lehiakortasuna eta lehia sustatu. Gainera, bortxaz ezarri zen botere hori, errespetu faltaz, burlaz, eta taldean lortutako akordio demokratikoei obeditu gabe. Guztien ongia eraiki eta zaintzeari muzin egin zitzaion. Demokrazia eta etika bezalako hitzek galdu egin zuten beren esanahia. Herritarrek agindu eta gure esku utzi zuten lana egiteko aukera mespretxatu egin zen. Lankidetzak, parte-hartzea edo enpatia ez ziren erabili, eta integratu beharrean kanporatzea erabaki zen. Nik egindako lana eta horretarako daukadan gaitasuna dudatan jarri dira publikoki, mespretxuz, eta horiek ikusezin bihurtu nahian. Eta bai, aitortu egiten dut erantzule naizela eta ondorengo hauek guztiak egin ditudala: EAJ eta BILBUren artean hitzartutako aurrekontuei osoko zuzenketa, kontinuitate zirelako, eta ez zirelako ez parte-hartzaileak, ez sozialak; Adineko pertsonak eta Transgenerazioa sustatzeko Batzordea osatu; Gardentasunerako Foru-arauaren lanketan Hiritarren Eskola sortzeko proposamena egin; Gizarte-Zerbitzuen Sailaren garapena eta betetze-maila zaindu, eskubide-sozialen eredu diseinatzerakoan herritarren eta erabiltzaileen parte-hartzea zuzena eta erabatekoa izan zedin; Zaharren Egoitzak arautzen dituen Oinarrizko Estatutua eguneratu; Gizarte-Ongizate Diputatuaren konparentzia eskatu, Eskubide Sozialen arloan hartutako hainbat konpromisoren betetze-mailaz galdegiteko, hala nola, etxegabeteak ekiditeko neurriez, Arabako zonalde behartsuenetan enplegua sustatzeko edo Arabako trenbideen kudeaketa

hobetzekoez, baita Ganberaren erabilera desegokia salatzen ere, bertan osasun-zerbitzuetako gastuen Hitzarmenaren inguruan eztabaidatzen baita, edo eztabaidak hauteskunde-esparru modura erabili. Eta bistakoa da Ganbera ez dela horretarako lekua.

Batzarkide-taldearen Lehendakari nintzela, Agora gunea inauguratu genuen, eta 2015eko irailean ezarri genituen 8 ardatz estrategikoak. Batzordea eta talde-lanean aritzea erabaki ondoren, gure jardura politikoaren plangintza egin genuen. Ahal-Duguko Arabako zirkuluetara joan eta aurrekontuen inguruko eztabaida parte-hartzailea bultzatu genuen. Esan beharra dago, hala ere, taldekide batzuen boikot-jarrera, ukazioa eta lankidetzaren falta nabariak izan zirela. Vitoria-Gasteiz barrutiko pertsona bozkatuena izan nintzen arren, Hiritarren Udal-Kontseiluan parte-hartzeko mugak jarri zizkidaten, oztopo eta difamazioen bidez. Gainera, nire kontra eta jakinaren gainean hartutako errepresaliek -liberazioa etetea, Bide-Azpiegiturak eta Mugikortasuna sustatzeko Batzordera bazterzea- erakusten dute taldekideen jarrera liskartsu iraunkorra. Are gehiago, arazoari konponbidea emateko iritsitako akordioa betetzeari uko egiteaz gain, nik eskatutako prebentzio neurriak ere ez dira hartu. Herritarrek emandako agindua betetzeko eta nire Kargu Publikoak ekarritako zereginetan egoera horretan aritzeak zuzeneko eragina izan du nire osasunean eta medikuek agindutako laneko bajan. Jarraitu ez jarraitu duda etikoaren aurrean, karguari uko egitea erabaki dut. Herritarrei egiten zaien iruzurrean parte hartu nahi ez dudalako, hauteskundeetan egindako promesekiko eta euren botoa eman ziguten herritarrekiko zintotasunez jokatu nahi dudalako, eta dauzkadan balioei koherentzia zor diedalako. Ez dut parte hartuko gure egitasmo politikoak ez betetzeko erabakietan, eta nire desobediencia iragartzen dut. Taldekideek arazoari aurre egiteko erakutsi duten pasibotasuna ikusita, eta hitzartutako neurriak hartzeari -oraintsu berriz eskatuak- uko egiten diotenez, ez dut nire osasuna berriz arriskuan jarriko.

Utzi zenizkidaten botoak itzultzen dizkizuet, baita bidean ikasitakoa ere: komunikabideak animatu nahi ditut informazio zehatzerako eskubideari eutsi diezaioten; herritarroei barkamena eskatu nahi dizuet, zuen agindua betetzeko orduan huts egin dut eta. Argi ibili! Ahalduntzea ez da, ez eman, eta ez hartzen; subjektu politikoak garen neurrian, pertsona bakoitzari dagokion erantzunkidetasuna baita ahalduntze hori. Jarrai dezagun parte hartzen, filtrorik gabe eta egitekoak beste norbaiten esku utzi gabe. Jarrai dezagun suminduta! Gure patrikatik ateratzen da Osoko Bilkura baten kostua edo lunch batena. Alderdi politikoek bere asignazioak gastatzen dituzten horretan gastatzen dituztela ere, gure poltsikotik ateratzen da dirua; eta hori guztia zalantzan jartzea politikagintzan aritzea da. Gure erronkarik handiena berdintasuna da; izan ere, politikan ez ezik bizitzan ere berdintasuna lortu behar dugu. Hori horrela izan dadin gauzak aldatu egin behar ditugu, era guztietako bortizkeriari uko eginez; eta ezagutzen ditugun ereduetatik kanpo, berritzaile izan behar dugu. Borrokak hortxe darrai.

Kalean izango nauzue.

Mari Cruz Polaina González – Podemos-Ahal Duguko Arabako Batzar Nagusietako Prokuradore.

Araba, 17/10/18^a

https://youtu.be/G_FLTUdW9F0